



**Arartekoaren 2019R-411-17 Ebazpena, 2019ko abuztuaren 7koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko eskaera ezezten duen erabakiari buruzko ebazpena berraztertu dezala, lanaldi osoko lanaren truke kexagileak, genero-indarkeriaren biktimak, lanaldi partzial mugagabea zuen lana utzi zuelako, arrazoia justifikatua izanda.**

#### Aurrekariak

Herritar batek Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zegoelako ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria onartzeko eskaera ezestearekin eta zehazpen modura urtebetez berriz ezin eskatu izanarekin.

Kexagileak 2016ko urriaren 6an eskatu zuen bi prestazioak onartzea. Eskaeran jakinarazitakoaren arabera, egun bizikidetzaren unitatea osatzen zuen eta ardurapean hiru adingabe zituen. Barakaldoko udalerrian bizi zen eta genero-indarkeriaren biktima izateaz gain, bere bikote ohiak eta seme-alaben aitak bizikidetzaren unitateko 4 kideekiko urruntze-agindua zuen.

Prozedura izapidetzen ari zen bitartean, Lanbidek komunikazio bat bidali zion. Horrek azaldutakoari jarraiki, ondoren aipatutako baldintzak edota eskakizunak ez zituen bete:

*Laneko diru-sarrerak edukiz gero, ez edukitzea lanaldi murrizturik edo antzeko egoerarik, salbu eta egoera hori borondatezkoa ez denean, betiere hori frogatuta, edo Lanbidek egoera hori beharrezkotzat jotzen duenean.*

*30/09/2016an beste kausa batzuetatik, zeinen arrazoia dokumentalki justifikatu behar izango duen, izan zuen.*

*Borondatezko amaierak zigor-urte bat ekartzen du RGI/PCVa lortu ahal izan gabe.*

*Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea eskabidea aurkeztu baino hiru urte (segidan) lehenagotik gutxienez, honako salbuespen hauekin: 1. Euskal kolektibitateetako kideen kasuan, errolda-denbora ez da beharrezkoa. 2. Pentsio publikoaren jasotzaileen kasuan, urtebeteko errolda. 3. Etxeko tratu txarren biktimen kasuan, urtebeteko errolda. 4. Urtebeteko errolda gehi ordainduriko lan-jarduerako bost urte. Gizarte Segurantzako altarekin. 5. Aurreko hamar urteetan, segidako bost urtetan EAEn benetan erroldatuta egotea. Ez du sententzia izatea justifikatu dokumentalki biktima du indarrean dagoen genero-indarkeriako . a eta bizitzea*

*Eskatzailearen ondarea (tituluak, balioak, ibilgailuak, eta, oro har, beste edozein ondasun higigarri) ez izatea bizikidetzaren unitateko kideen kopuruaren eta bizikidetzaren unitate motaren arabera eta batere baliabiderik ez izatearen kasurako*





*dagokion gizarteratzeko eta Gizarte-babeserako oinarrizko errentaren urteko zenbatekoaren gehienez halako lau baino handiagoa.*

*Eman behar izango ditu jatorrizkoak, kopiak eta familia-unitateko kide guztien ondare ziurtagirien itzulpen ofizialak."*

Jaso ondoren, kexagileak alegazioak aurkeztu zituen, besteak beste, hurrengo laguntza-dokumentazioarekin batera: lan-kontratuei buruzko kopia eta Emakumeen gaineko Indarkeriaren Auzitegiak emandako 74/2015 Autoa. Halaber, auzitegiko oharra zegoen eta auzian ahozko ikustaldia 2017ko apirilera finkatzen zuen. Gainera, alegazioek hala zioten:

- (xxxx) garbiketa-enpresan emandako bajei dagokienez: alde batetik, 2016ko ekainaren 30ekoak, egiaz, garbitzaile modura aipaturiko enpresarekin sinatua zuen kontratuaren (2015eko urritik 2016ko ekainera bitartekoa) amaiera islatzen zuen. Bestetik, enpresa berean 2016-09-30eko borondatezko bajari eutsiz, egunean 2 orduko kontratua zen, hau da, astean 10 ordukoa gehi beste 5 ordu larunbatetan Mungia udalerriko ikastetxea garbitzeko. Hori "(yyy)" okintza-enpresan, Bilboko Deustu auzoan, beste lanaldi erdi batekin konbinatzen zuen. Lan horretan astean 20 ordu ematen zituen.

Okintza-enpresak lanaldi lanaldi osora (astean 40 ordu) zabaltzea eskaini zion eta bere lan-egoerak, joan-etorriek eta soldatak onera egingo zuten, arestian azaldu den bezala, indarkeriaren eta urruntze-aginduaren testuingurua kontuan hartuta, bizi pertsonala eta lan bizia hobe bateragarri bihurtzearekin batera, borondatez baja hartu zuen (xxx) garbiketa-enpresan, kontratua lanaldi partzialan mugagabea izan arren, Deustun lanaldi osoko okindegiko lana onartzeko.

- Genero-indarkeriaren biktimari dagokion egoeraren inguruan, dokumentazio judiziala aurkeztu zuen eta bere alabekiko, baita bere buruarekiko ere indarreko urruntze-aginduaz gain, idazkiak zehaztutakoarekin bat, epaiketaren zain zegoen. Hori atzeratzen ari zen, baina bera ez zen arduraduna, bere ofiziozko abokatuaren eta auzitegien baitan baitzegoen. Dena den, une horretan prozedurak jardunean jarraitzen zuen.

- Azkenik, bere hiru alaba adingabeen jatorrizko herrialdeko ondasunei buruzko ziurtagiriak aztergai hartuz gero, Lanbideren aurrean aurkeztutako idazkian baieztatzen zion erakunde publikoari formalki eskatu zitzaizkiola Marokori, baina agintari eskudunek oraindik egin gabe zituztela eta, ondorioz, eskuratu bezain laster Lanbideren aurrean dokumentazioa aurkezteko konpromisoa hartu zuen. Hala ere, dokumentuak kudeatzeko epeak ez zeuden bere esku.

Dena den, Lanbidek alegazioak ezetsi zituen eta kexagileari bi prestazioetarako eskubidea ezestea erabaki zuen. Ebazpena arrazoi bakarrean funtsatzen zen:

*"Lanaldi-laburtzeaz gozatze laboral edo borondatezko erako antzeko egoera.*





*Argudiatzen du boluntarioki gelditu zela ordutegi-handitzea beste enpresa batean onartzeko, baina utzi zuen lana mugagabea zela eta aldi baterako kontratuan eguna, soldatako aldaketa garrantzitsurik gabeko handitzeko utzi zuen. Borondatezko amaierak zigor-urte bat ekartzen du RGI/PCVa lortu ahal izan gabe.”*

Lanbidek ez zuen inola ere kontuan hartu lanaldi partzialean enplegua borondatez uzten zuela, batetik, lan baldintzak hobetzeko eta, bestetik, indarkeria eta indarreko urruntze-aginduaren testuinguruan familia eta lan bizia bateragarri egiteko. Halaber, erakunde publikoak justifikatzeko, ez zuen lan-orientabideari buruzko txostena egiteko eskatu.

Ezeste-ebazpena jakinarazi ostean, kexagileak aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuen eta alegazioen fasean emandako argudioak errepikatu zituen. Lehenago, kexa bat aurkeztu zuen Arartekoan.

Arartekoak kexa izapidetzeko onartu zuen, eta, ondoren, lankidetzak eskatu zion Lanbideri, adierazitako egitatei lotuta. Horrez gain, aurretiko gogoeta batzuk helarazi zizkion, eta errepikakorrak ez izatearren, gero aipatuko ditugu.

Lankidetzak eskaerari erantzunez, Lanbideren zuzendari nagusiak Arartekoari txosten bat igorri zion hurrengo adierazteko:

*–“Gutun honen bidez, erantzuna eman nahi diogu 2017ko martxoaren 22an bidali zenigun idazkiari. Idazki horretan, xxx xxx (xxx) andreak aurkeztutako kexa bat daga, DSBE/EPO prestazioak jasotzeko eskaera ukatu zitzaielako egindakoa.*

*Espedientea ikusirik, argi daga erreklamaziogileak bere borondatez utzi zuela lan-kontratu mugagabe bat, aldi baterako lan-kontratu bat egitearren. Argudiatzen du azken horri esker 40 ordura luzatzen dela bere lanaldia, eta hori hobeki egokitzen zaiola bere egoera pertsonal eta profesionalari.*

*Alabaina, argigarria da azken kontratu horren izaera aldi baterakoa dela ha in argi egonik (udaberriko/udako kanpaina) izaera finkoko bat uztea hargatik, ziurgabetasun egoera argian jartzen baitu familia-nukleoa.*

*Aztergai dugun kasuan, errekurtsogileak bere borondatez uko egin dio lan-kontratu finko bati, definizioz bizikidetzak-unitatearen lan-egoera modu egonkorragoan babesten duen bati, eta, hori horrela izanik, uko egin die bide horretatik diru-sarrerako lortzeko aukerari, DSBEa baino txikiagoak izanik ere horren bidez osatu zitezkeen arren.*

*Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.8 artikulua diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen titular izateko eskakizunetako bat honako hau dela ezartzen du: titularrari edo*



*bizikidetza-unitateko edozein kideri legokioken eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea edo baliatu. izana.*

*Are gehiago, Gizarteratzeari eta Diru Sarrerak Bermatzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 16.f) artikuluan, diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea izateko eskakizunen zerrendan eskatzen da "Laneko diru-sarrerak izanez gero, ez egotea lanaldi laburtuan edo antzeko beste egoera batean, erregelamendu bidez ezarriko diren salbuespenetan izan ezik".*

*Arauaaren ildo beretik, 147/2010 Dekretuaren 9. 7 artikuluan garatzen da agindu hori.*

*Bestalde, urtebetez DSBEa eskatu ezin izateari dagokionez, ukatze ebazpenaren idazlana nahasgarria den arren, zehaztu beharra daga Lanbidek uste duela badagoela kausazko lotura bat, aztergai dugun kasuan, xxx andreak lan-postu finko bat borondatez uzteko hartutako erabakiaren eta DSBEaren eskaeraren artean (lehena, 2016ko irailaren 30ean egin, eta, bigarrena, 2016ko urriaren lehen). Hori horrela izanik, eskatzaileak nahita hartutako erabakia dela jotzen denez, ukatu egin zaio laguntza hori eskatzeko eskubidea, lana borondatez utzi zuenetik urtebete igaro bitartean.*

*Hartutako neurri hori ez da nahastu behar Gizarteratzeari eta Diru Sarrerak Bermatzeari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikuluan ezarritakoarekin, hartan ere laguntza hori eskatzeko eskubidea urtebetez ukatzen bada ere, azkentzea ebazten den unetik aurrerakoa baita e pe hori. Izan ere, kontuan hartu behar da xxx andreak ez zaiola aitortu diru laguntza horren titulartasuna, zure txostenean jasotzen denez. Hartutako neurria interpretatzeko, beraz, lege horren 13.1 artikuluan zehaztutakoa hartu behar da kontuan: "Diru-sarrerak bermatzeko errenta subsidiarioa eta, hala badagokio, osagarria izango da indarreko legerian aurreikusten diren era guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoei dagokienez, horiek titularrari edo haren bizikidetza-unitateko edozein kideri legozkiokeenean.(...)".*

*Hau da, ondoriozta daiteke legegileen helburua zela diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzeko aukerarik ez ematea lanaldia murriztu dutenei, lanari uko egin diotenei edo norberari lepora dakizkiokeen kausengatik kaleratuak izan direnei, izaera subsidiarioa baitu, eta ezin baita baliatu lanagatik legozkiekeen diru-sarrerak ordeztzeko".*

Kexagileak aurkeztutako errekurtsua Lanbidek adierazitakoaren ildotik eta bere motibazioarekin ezetsi zen, bai aurretiazko ebazpenean, baita erakunde honi bidalitako lankidetzatxostenean ere.

Lanbidek errekurtsua ezesteko ebazpenean, zuzenbide-oinarrien artean, 147/2010 Dekretuak, maiatzaren 25ekoak, 9.8. artikuluan aipatutakoa erabili zuen, hau da,



diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradun izateko baldintzen artean dago "...titularrari edo bizikidetz-unitateko edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea". Izan ere, prozeduraren hasieratik lehenengoz erantsi zuen.

Horrenbestez, beharrezkoak diren egitate eta zuzenbide elementuak ditugula uste dugunez, honako gogoeta hauek egin nahi ditugu:

### Gogoetak

Arartekoaren ebazpen honek Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren eskubide subjektiboa onartzeko eskaera ezestea zuzenbidearekin bat datorren aztertzea du xede.

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatu ondoren, Lanbidek ezesteko ebazpena, bere ustez, kexagileak araudiak ezarritako baldintzak ez betetzean oinarritu du, aldez aurretik enplegu batean borondatez baja hartu zuela ageri baita.

Dena den, egiaztatua gelditu da kexagileak, guraso bakarreko bizikidetz-unitateak, orduka eta lanaldi partzialean bi lan prekario konbinatu dituela bere bizitokiarekiko eta alabak eskolatuak daudenekiko bi udalerrri desberdinetan oinarritzko beharrak estaltzeko:

- Bata, garbiketaren sektorean, lanaldi partzialean mugagabea, baina 10 hilabeteko iraupenarekin, egunero 2 orduz gehi larunbatetan 5 orduz, Mungiako udalerriko ikastetxean. Horiek hilean batez beste guztira 60 ordu dira.
- Bestea, obra eta zerbitzuetako kontratua, lanaldi partzialean, udaberri/udako sasoirako, Deustuko (Bilbo) okindegian, 3 ordu goizez gehi 5 ordu larunbatetan, beraz, astean 20 ordu, batez beste hilean 80 ordu, okin-hautagaiaren moduan.

Biekin, guztira, batez beste lanaldia hilean 480 ordukoa zen eta zegokion ordainsaria jasotzen zuen. 3 udalerriren artean ibili behar zuen eta egunero bidaietan bi ordu baino gehiago ematen zituen lanaldi partzialeko bi lanak nahiz bizitokia (Barakaldo) bateratzeko. Hori guztia genero-indarkeriarengatik berarentzat eta bere 3 alaba adingabeentzat indarreko urruntze-aginduaren testuinguruan egiten zuen.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatu aurreko borondatezko baja, bi enpleguetatik batean (astean ordu gutxiago zituenean eta bizitokitik eta alaben eskolatik urrunago zegoenean) kexagilearen lan-bizian ageri dena, Deustuko okindegiak egindako eskaintzatik eratorria da. Batez beste astean 40 orduko edo hilean 1.600 orduko lanaldi osoa egin zezakeen enpresa horretan bere bizitokia kontuan hartuta, udalerririk hurbilenean. Aurreko datuak abiapuntutzat hartuta, ondoriozta daiteke aldaketarekin lan-baldintzak argi



eta garbi hobetu zirela eta, beraz, borondatezko baja justifikatua legokeela, Lanbideren Irizpideei buruzko Agiriak, 2017ko maiatzean eguneratutakoak, ikusten duen bezala (4.4. atala):

*“Ez da borondatezko bajatzat hartuko DSB Eren titular edo onuradun batek lan bat borondatez uztea eta aurrekoa baino hobea den beste lan onartzea (lanaldi, soldata edota lan-baldintza orokor hobekak). Salbuespen hori aplikatzeko, lan-orientabideko txosten bat eduki behar da”.*

Nahiz eta aurreko enpleguan kontratu mugagabea zuen, iraupena egunean 2 ordukoa eta larunbatetan 5 ordukoa zen (astean 15 ordu). Gainera, Barakaldotik Mungiaraino joan behar zuen eta handik Bilboraino, bigarren enpleguan jardutera. Ildo horri jarraiki, Deustuko okindegian lanaldia zabaltzeko (astean 40 ordu) eskaintza berria jaso zuenean, kexagileak borondatez baja hartu zuen. Hala berria onartu eta, bide batez, lanaldia eta ordainsaria gehitzeaz gain, lan-egoera hobetu zuen eta familia-bizia nahiz lanbide-bizirik onera egin ere bai. Izan ere, borondatez baja hartu zuen garbiketa-kontratuaren bigarren klausula zehatz-mehatz irakurriz gero, teoriarik “mugagabea” izan arren, berariaz honakoa adierazten zen: *“El contrato se concierta para realizar trabajos periódicos de carácter discontinuo consistentes en Limpieza de las Instalaciones del Colegio, dentro de la actividad cíclica intermitente de Mantenimiento y Limpieza de las Instalaciones, cuya duración será de 10 meses”.*

Arestian azaldutako guztiarengatik, Arartekoaren iritziz, enpresa eta udalerririk berean lanaldi osoko lana eskuratzeko enpleguan borondatez baja hartzea justifikatua legoke.

2. 18/2008 Legeak, abenduaren 23koak, eta 147/2010 Dekretuak, maiatzaren 25ekoak, ez dute berariaz aurrez ikusten enplegua ukatzeagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ezets daitezkeenik. Arartekoak lankidetzara eskatu ondoren, Lanbideek bidalitako erantzunean 147/2010 Dekretuak, maiatzaren 25ekoak, 9.7. artikuluan ezarritakoa aipatu du. Hala, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak izateko baldintzen artean, ez da lanaldi mugatuaz edo antzeko egoeraz gozatuko. Bi ustezko daude hori salbuesteko: egoera hori borondatezkoa ez dela egiaztatzea edo Gizarte Segurantzak txostena egin ondoren hala izan behar duela esatea. Halaber, Lanbideek maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuaren 9.8. artikuluari eutsi dio. Horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuraduna izateko, pertsona titularrari edo bizikidetzak unitateko beste edonori legezkiokkeen eskubide edo prestazio ekonomiko guztiak defendatu behar dira.

Arartekoaren ustez, araudia aldatu beharko litzateke, arrazoi justifikaturik izan gabe berariaz borondatez enpleguari uko egiten zaiola aurrez ikusteko eta hori izango litzateke, hain zuzen, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ezesteko arrazoiak. Gainera, berme osoz zehaztu beharko luke arrazoi justifikatua egiaztatzeko modua. Itxuraz, ez da nahikoa eskubidea beste ustezko batzuetarako aurrez ikusitako artikuluetan oinarritua ezatea.



Nolanahi ere, Lanbidek kontuan hartu beharko luke borondatez uko egin zaiola enplegu bati beste enplegu bat lan-baldintza hobetoetan onartzeko. Bestela, 2017ko maiatzean Lanbidek eguneratu zuen irizpideen agiriari jarraiki, enplegua borondatez ukatzeagatik suntsiarazten denean, lan-orientabideari buruzko txostena eskatu beharko da, lan-baldintzak hobetu al diren justifikatzeko<sup>1</sup>.

Lanbidek bere lan-gorabehera berriei ez die erreparatu, Arartekoaren iritziz, lanaldi osorako enplegua onartzearekin, behin-behinekoa izan arren, ardurapean hiru adingabe dituen guraso bakarreko egoeran eta genero indarkeriaren eta urruntze-aginduaren testuinguruan lana bateratzeko zailtasunekin lan-baldintzak argi eta garbi hobetzen direnean.

Arartekoak zenbait ebazpen egin ditu eta arrazoi berarengatik diru-sarrerak bermatzeko errenta ezestearen gaia dakarte harira:

- Bestalde, 2016R-788-15 Ebazpenak, 2016ko martxoaren 11koak<sup>2</sup>, bi lan-baja izateagatik ezestea du aztergai. Arartekoaren ustez, lan-harreman berrietan berehala emandako bi altekin lotu beharko lirateke, beraz, justifikatua legoke eskubide ekonomikoei uko egin ez zaienik.

Era berean, Arartekoaren 2016S-34-16 Ebazpenak, 2016ko abenduaren 2koak,<sup>3</sup> diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren hartzaileak enplegua ukatzean egoera pertsonalen garrantzia (guraso bakarreko familia, bi seme-alaba adingaberekin eta horietako bat desgaitasunarekin) aztertu zuen. Ezinezkoa zitzaion familia bizia bateragarri egitea eta, horregatik, Lanbidek prestazioak iraungi zizkion. Familia eta segurtasun gorabehera konplexuak ematen dira ere ebazpen honen xede den kexa-espeditentean.

Arestian aipatutakoaren ildo beretik ekar daiteke ahotara beste kexa batean kontuan hartutako errekurtoa (2018/REC/004327), Arartekoaren aurrean aurkeztutakoa (1097/2018/QC). Kasua antzekoa zen, hau da, diru-sarrera bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titularrak borondatez baja hartu zuen. Guraso bakarreko bizikidetzaren unitatea osatzen zuen eta bere ardurapean adingabe bat zuen. Lanbidek hirugarren eta laugarren zuzenbide oinarrietan hala dio:

---

<sup>1</sup>Txostenak eskatzea 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, (APEL) 79. eta 80. artikuluetan aurrez ikusten du.

Arartekoaren 2016R-788-15 Ebazpena, 2016ko martxoaren 11koa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ezestearen erabakia berrazter dezan. Prestazioaren titularrak izan baino lehen, bere lan-biziaren barruan enpleguan borondatezko baja ageri zelako, pertsona bati prestazioa ezetsi ondoren, Lanbideren jarduna aztertzen zen. Ondorengoan eskuragarri: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_3890\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3890_1.pdf)

<sup>3</sup>Arartekoaren 2016S-34-16 Ebazpena, 2016ko abenduaren 2koa; horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen zaio diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria irautgitzeko ebazpena berrikusteko. Webgune honetan eskuragarri: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_4076\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4076_1.pdf)



*-TERCERO: "...se constata que aunque la recurrente causara baja voluntaria con la empresa xxx...no solo mejoró su situación laboral y económica, sino que además mejoró sus expectativas de empleo a futuro y su situación personal a efectos de conciliación familiar, punto a tener en cuenta por el bien de la menor que tiene a cargo.*

*CUARTO: Si bien es cierto que en el documento donde se recogen los criterios que Lanbide tiene en cuenta para la interpretación de las disposiciones que rigen la RGI, viene como requisito para darse de baja voluntaria de un empleo e iniciar otro, tener un informe de orientación laboral, no podemos obviar que las mejoras son palpables cuantitativa y cualitativamente y que la rapidez con la que se produjo el cambio de un contrato a otro pudo ser una circunstancia a tener en cuenta para no llevar a cabo este requisito formal, que en ningún caso puede desvirtuar el espíritu de la norma reguladora de la RGI"*

3. Zioen azalpenak adierazitako moduan, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak, lehen aipatutakoak, eta abenduaren 23ko 18/2008 Legeak, diru-sarrerak bermatu eta gizarteratzeko denak, honako helburu nagusia dute *"... sistema sendo bat egituratzea da, krisi-egoeretan sendotasuna bermatzeko, azken urteotan ikusi den premien bilakaerara ondo egokitutako sistema bat. Aurreko ereduaren esparruan pobrezia-tasei eusteko eta fenomenoaren modurik muturrekoenak eraginkortasunez prebenitzeko gai izan zen balantze positiboa onartu arren, ezinbestekotzat jotzen du politika publikoen ahaleginak berrorientatzea, bilakaera horren ezaugarri kualitatiboak ezarri dituzten hainbat joera kontuan izanik, bereziki pobrezia feminizazioa –gurasobakar-egoerekin zuzenean lotua– eta, beharbada garrantzi handiagoarekin haren egitura-profila dela medio, soldata-maila baxuei lotutako pobrezia".*

Horregatik, Arartekoak kasu zehatz honetan eta antzeko beste batzuetan berretsitakoarekin bat, emakumeek eta ardurapeko adingabeek osatutako guraso bakarreko familiak pobrezia-egoerek eragiten dituzte bereziki, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak egindako txosten eta diagnostikoetan, eta beste erakunde batzuek<sup>4</sup>egindakoetan. Hasieran, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria arautzen dituen araudiak hainbatetan genero-indarkeriaren biktima diren pertsonen (helduak eta adingabeak) egoera kaltebera berezia ikusgai utzi eta kontuan hartzen du, bai baldintzei, bai eskakizunei dagokienez.

Hala eta guztiz ere, Arartekoak lantzen ari garen antzeko ebazpen ugari aztertu ditu eta Lanbidek 147/2010 Dekretuak, maiatzaren 25ekoak, diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzkoak, 9.8. artikuluan xedatutakoaren interpretazio hedakorrak egiten ditu. Hala, onuradun izateko baldintza bezala honakoa ezartzen du: ***"Espedientearen izapidetzea amaitu aurretik titularrari edo bizikidetzaren unitateko***

<sup>4</sup> Pobrezia eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestaren emaitzen txostena (PGDI) 2016.

[Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/2017/2016ko-pobrezia-eta-gizarte-desberdintasunei-buruzko-inkestaren-emaitzen-txostena-pgei/web01-a3estnpr/eu/>

EMAKUNDE 2018 Txostena: "Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa gizarte bazterketa eta txirotasunean"



*edozein kideri legokiokeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea.*" Ebazpen honetan aztertzen ari den kasua kontuan hartuta, bere gorabehera guztiekin, zaila da arauan sartzea edo bere aplikazioa arauaren espirituari egoki dakiokela ulertzea, kexagileak nahiz eta ordu eta soldata gehiagorekin udalerritan batean lanaldi osokoa hartzeko bi udalerritan zituen lanaldi partzialeko bi lanetatik bat utzi (egunero 2 ordu eta larunbatetan 5 ordu), ez baitio inola ere uko egin eskubide ekonomikoari. Gainera, kexagileak alegazioen epean eta errekurtsorearen bidean alderdi hori ziurtatu du.

Laburbilduz, arestian azaldutako guztiari erreparatuz, Arartekoaren iritziz, 2016ko urrian kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatu ondoren, ezestea eta kexagileak 2017ko maiatzaren 31n aurkeztutako berraztertze errekurtsua kontuan ez hartzea ez datoz zuzenbidearekin bat: diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatu baino lehen lan-biziaren ziurtagirian ageri denari jarraiki, kexagileak egiaztatu du lanaldi partzialeko bigarren lanean borondatez baja hartzea justifikatua zegoela. Lan- eta ekonomia-egoera hobetzeaz gain, etorkizuneko lan itxaropenak eta bere egoera pertsonala hobekuntza ziren, familia bizia bateragarri egiteko. Nolanahi ere, alderdi hori kontuan hartzekoa da indarraldi eta urruntze-aginduaren testuinguruan bere ardurapeko hiru adingabeen onurarako. Kualitatiboki eta kuantitatiboki hobekuntzak nabarmenak zirela ezin daiteke bazter. Horrez gain, lan-kontratu batetik bestera oso azkar pasa zen eta hori ere kontuan hartu beharko litzateke baldintza formal hau ez gauzatzeko. Izan ere, ezin du diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko arauaren espiritua hutsaldu, beraz, Arartekoaren ustez, maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak 9.8. artikuluan xedatutako baldintza ez luke urratuko.

Azkenik, azpimarratu behar da gutxienez 8 hilabeteko atzerapena 2016ko urrian diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eskatu zuenetik berraztertze errekurtsua ezetsi arte. Lanbideak 2017ko maiatzean jakinarazi zion eta 4 kideko familia guztiaren kalteberatasun eta babesgabetasun egoera areagotu zen. Ildo horretan, Arartekoak berriz nabarmentzen du adingabearen interes gorenak duen garrantzia. Hori gure antolamendu juridikoan dago (Nazio Batuen 1989ko Konbentzioa, Haurren Eskubideei buruzkoa; uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa; urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoa). Erakunde honek aztertu egin zuen printzipio horrek diru-sarrerak bermatzeko errentan eta etxebizitzarako prestazio osagarrian zer eragin duen, arartekoaren apirilaren 8ko 2/2015 Gomendio Orokorrean<sup>5</sup>. Horren politika publikoetan adingabearen interes gorena kontuan hartzeko betebeharra; bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman aipatzen da.

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten diogu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin arabera Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

---

5 Hemen eskuragarri: [http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1\\_3662\\_1.pdf](http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_3662_1.pdf)



## GOMENDIOA

Arartekoak diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria onartzea eskatu ostean, Lanbidek ezetsi zuen ebazpena berraztertzea gomendatzen du, kexagileak, ardurapean 3 adingabe dituenak, (bai bera, bai bere alabak indarreko urruntze-aginduarekin genero indarkeriaren biktimak diren neurrian) borondatez enplegu bat utzi arren, justifikatua zegoelako. Aurrekoari eutsiz, lanaldi partzialeko enplegu mugagabe bat utzi zuen, beste enpleguan lanaldi osoan jarduteko, beraz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren titular izateko baldintzak betetzen zituen.

